

## Eguzki-adarren mitoa desmitifikatuz

**H**amaika urtean behin, gutxi gotti-beheiti, Eguzkia-Lurra iharduerean zikloaren galurraren inguruan, ekaitz magnetiko handiak jazotzen dira; sare elektrikoak hondatu, satellite bidezko komunikazioak interferitu eta aurorak latitude baxuetaraino eramaten dituztenak, besteak beste. Komunikabideek gertaera horien argibidea eskatuz unibertsitate, behatoki, etab. etako adituak kon-


tsultatzen dituztenean, honelakoxea izaten da ohizko erantzuna: "eguzki-adarrek jaurtitako partikula energetikoek sortua da".

Jack Gosling-ek, Los Alamosko (Texas, EEBB) National Laboratoryko zientzialariak erantzuna okerra dela dio; gertaera horien jatorria eguzki-adarrek ez direla, alegia. Bere iritziazen arabera (bide-nabar esan dezagun gero eta zientzilarik gehiagok onartzen duela) eguzki-koroaren masa-egozketak dira gertaera horien jatorria.

Koroaren masa-egozketak, koroa-egituren berregituraketa lasterrren ondorio dira. Horiek, koroa-materialaeko kantitate handia injektatzen dute eguzki-haizean. Horrelako fenomenoak espazioan kokatutako koronografoen bidez baino ezin dira ikusi. Burbuila erraldoi moduan ageri dira (Ikus (.irudia). Eguzki-iharduera aztertzuten duten zientzilarientzat fenomeno berria

da hau. Izan ere, 1970eko hamarkadaren hasieran aurkitu zen.

**Aurorak eta beste fenomeno horiek azaltzeko Jack Gosling-ek proposatzen duen gertaera-eskema eta orain arte onartutakoa 2. irudian azaltzen dira.**




Gaur egun asteroideen talkak pil-pitean daude, eta gai hori ere aztertu beharko du "Clementine" zundak. Maiatz honetan Ilargiko orbita utzi eta abuztuaren amaieran Geographos bisitatuko du, hau da, espazioan noraezean dabilen hiruzpalau kilometro luze eta 1,5 kilometro zabaleko haizta.

## Ilargia berriz ere



**I**largia pertsonak orain dela hogeita bost urte zapaldu zenez gero, gure satelitea ahaztuzkoa genuen, baina oraindik ere han badago zer ikerturik. Urtarrilaren 25ean, NASAk "Clementine" izeneko zunda bidali zuen hango misterioak argitu asmoz. Ilargiaren jatorria eta bolkanismoa dira batez ere ikertu nahi diren puntuak, gainazalaren konposizio zehatza lortuz.

## Tora, Tora, Tora!

**J**aponiako Espazio Agentziak arrakasta osoz lortu zuen Jotsailaren hasieran bere lehen kohetea jaurtitzea. H-II izeneko kohete horrek bi karga jarri zituen orbitan. Jaurtiketa honi esker japoniarrek Estatu Batuetan kohete-teknologiaz zuten menpekotasuna hautsi dute eta satelite-jaurtitzailaen merkatal klub txikiro partaide bihurtu dira.



1. irudia.



2. irudia.